

## ARDI LATXEN KLONAZIOA

Gaurtik aurrera literaturak beste topagune bat izango du, leku eroso eta atsegin honetan, ardiek babesturik. Agian norbaitek pentsatuko du, badirela begirale hobeak, sendoagoak, baina ardi larruaren azpian badakizue sarritan ezustekoak ezkututzen direla, horretaz mintzatuko naiz hitz lauz. Hitza gainera oso tresna eraginkorra da eta begiak bere sarean harrapatzen ez dituen gauzak ehizatu ohi ditu. Nire hitzek jada harrapatu dute bitxikeria bat, eta hemen agerian jartzen saiatuko naiz.

Zuen begietara noski, iritsiko ziren ardi latxak, beltzak eta zuriak, gorriak, berdeak, horiak... ere bai, garraiatzen dituzten autoaren arabera. Begirada botako zenuten eta ikusi, ardi hauek 120k/o abiadura har dezaketela, eta semaforoa gorri jartzean atsedean hartzen dutela.

Begia bistakoa da, mendia ez dela beraien esparru naturala eta larre zabaletako belar motzez elikatu ordez Super 95 edo Dieselez elikatzen direla eta betaurrekoak jantzi gabe ikusiko zenuten artaldea ikaragarri ari dela zabaltzen.

Begirada luzatu arren ordea, artzainik ez da ageri, begiko zuloetan ez direlako gordetzen, begien sareek ez dituztelako harrapatu, baina hitza ehiztari ona izan da beti, eta nik hitza baliatuz, sareetan harrapatu nuen bat, eta saretan nuelarik mintza zedin eskatu nion, aske geratzeko baldintza bakarra, berau zela garbi azalduz.

Artzain honek esan zidanez, begiak ixten badituzu, ardiak hitz egiten omen dizu, izan ere, ardiak ez du nahi izaten bera hitz egiten ari delarik, ikustea, baina jadanik hiru hitz ei dakizki esaten: “ euskara, laia eta ardi latxa”, eta ikustekoa omen da gainera, nola esaten dituen entzutea. Ardi horiek ez omen dute esnerik ematen, ardi horiekin ezin da gaztarik egin beraz, eta artilezko jantzirik ez dago negurako. Euskal kultura omen da ardi horien ekarpena, euskal kultura bizi berritzea omen dute helburu eta halako iraultza bat prestatzen ari omen dira, pixkanaka gure kaleak hartuz.

Dollyrena laborategiko esperimentu zitala besterik ez zen izan, klonatzeko era koldarra, baina agian ardi latxarekin egin den klonazio berezi honek izan dezake ondorio dotorerik, batez ere, gure mendietan bizi diren benetako ardi latxak kutsatzen ez dituelako, alderantziz, gasolinaz elikatzen diren ardiek, euskal kulturaren barruan bizi den ardi latxa belar jalearen bizi iraupena luza dezakeelako, besteak beste.

Euskal Herri guztian zabaldu dira artaldeak, eta belarria tente jartzen baduzue, isiltasunari dei egin eta begiak ixten badituzue ikusiko duzue, nola egia den, hitz egiten ikasi dutela, nik bat daukat etxean eta lehengo batean, ohean etzanda nengoela, norbait sentitu nuen hizketan: “ euskara, laia eta ardi latxa” errepikatzen zuen, oraindik trakets samar bazen ere.

. Istorio ikustezin hau momentuz hemen utziko dut, guztia kontatzea ere ez da eta zilegi eta gainera gaurkoz nire sarean harrapatutako bitxikeriak agortu zaizkit, beraz berriro joan beharko dut ehizara, hitza eman didatenez, erabili egin beharko dut eta.